

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

132/2019 Foru Agindua, martxoaren 13koa, onesten duena barne sustapenerako deialdia Arabako Foru Aldundiaren karrerako funtzionario diren administrazio orokorreko eskalako administrariaren azpieskalako C taldeko C1 azpitaldeko langileentzat, administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpitaldean sartzeko

Abenduaren 21eko 69/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planari Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen esparruan.

Plan horren helburuen artean dago administrazio orokorreko eskalako administrariaren azpieskalako C taldeko C1 azpitaldeko langileen barne sustapena egitea administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpitaldean sartzeko.

Prozesu hori egin ahal izateko, deialdia arautuko duten oinarriak argitaratu behar dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Abenduaren 21eko 69/2018 Foru Dekretuak, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Plana onesten duenak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen eremuan, xedatutakoari jarraituz, barne sustapenerako hautaketa prozesurako deialdia egitea Arabako Foru Aldundiaren karrerako funtzionario diren administrazio orokorreko eskalako administrariaren azpieskalako C taldeko C1 azpitaldeko langileentzat, administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpitaldean sartzeko.

Bigarrena. Onestea deialdiaren oinarriak, gai zerrenda eta parte hartzeko eskaera orria (I., II. eta III. eranskinak).

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 13a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



I. ERANSKINA

BARNE SUSTAPENERAKO DEIALDIAREN OINARRIAK ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KARRERAKO FUNTZIONARIO DIREN ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAKO ADMINISTRARIEN AZPIESKALAKO C TALDEKO C1 AZPITALDEKO LANGILEENTZAT, ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAKO KUDEAKETA AZPIESKALAKO A TALDEKO A2 (B) AZPITALDEAN SARTZEKO

LEHENENGOA. - DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua hau da: Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako **26** plaza —A taldea, A2 (B) azpitaldea— oposizio-lehiaketa bidez betetzea, honako banaketa honen arabera:

- 1 plaza derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.
- 16 plaza derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin.
- 8 plaza derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.
- 1 plaza derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin, desgaitasunen bat dutenen txandarako gordea.

BIGARRENA. - PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

Deialdi honetan Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Plana onesten den egunean euren funtzionario izendapenaren arabera honako ezagugarri hauek dituen lanpostuan badaude: administrazio orokorreko eskala, administrarien azpieskala, C taldea, C1 azpitaldea. Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia egoeran egotea administrazio orokorreko eskalan, administrarien azpieskalan, lanpostua gordeta, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean.
2. Honako titulazio hauetako bat edukitzea edo hura jaulkitzeko tasak ordainduta izatea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean: ingeniari teknikoaren titulua, unibertsitate diploma, arkitekto teknikoa, hirugarren mailako lanbide heziketa edo baliokidea edo titulu horiei dagozkien goragoko mailako tituluak. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
3. Egiaztatzea bi urte gutxienez administrazio orokorreko eskalan, administrarien azpieskalan.

HIRUGARRENA. - KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK

Prozedura honek sortzen dituen komunikazio eta jakinarazpenak Gurenetan (Funtzio publikoa-Informazio orokorra atala) argitaratuko dira.

**LAUGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEA**

Deialdi honetan parte hartzeko eskaerak deialdiaren eranskinean dagoen eredu normalizatuan egingo dira eta deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita 10 eguneko epean aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuan (Probintzia plaza 5, beheko solairua, 01001 Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aipatzen dituen bulegoetatik edozeinetan.

Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, euskara probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Horretarako, eskaerako atal egokietan adierazita egon beharko dira:

- a) Eskatzen diren datu pertsonalak.
- b) Desgaituentzat gordetako kupoan parte hartzeko hautua, baldin eta izangaiak betetzen baditu pertsona horientzat gordetako plazarako lehiazteko betekizunak eta hala nahi badu.
- c) Oposizio aldiko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.
- d) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua.

Hautaketa prozesuan parte hartzen dutenek berariazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko.

BOSGARRENA. - ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, Arabako Foru Aldundiaren Gureneten (Funtzio publikoa-Informazio orokorra atala) onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratuko da –baztertze arrazoen azalpenarekin batera, baztertuen kasuan–, eta hurrengo egunetik hasita 3 egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara emango da.

SEIGARRENA. - BALORAZIO BATZORDEA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak izendatutako balorazio batzorde batek egingo du hautaketa prozesuaren balorazioa. Onartuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da batzordearen osaera. Batzordeko kideen egokitasuna eta kualifikazioa, eta emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko dira.

Batzordeburuak, idazkariak eta hiru batzordekidek osatuko dute batzordea.



Balorzio Batzordeko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Balorzio Batzordeak ebatziko ditu arau hauek aplikatzerakoan sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurreikusi gabeko kasuetan zer egin behar den ere.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa.

Balorzio Batzordea ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titularrak zein ordezkoak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 19. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, Balorzio Batzordeko kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiak kideak errefusatu ahal izango dituzte.

Hautaketa prozesuko edozein unetan Balorzio Batzordeak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago, betiere interesdunari entzun ondoren, izangai hori baztertu dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adieraziz.

Jarduteko prozedura Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 19. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakora lotuko da beti.

Balorzio Batzordeak adituak izendatu ahal izango ditu; aditu horiek aholkulari moduan arituko dira beren espezialitateko gaitetan, hitzarekin baina botorik gabe.

ZAZPIGARRENA. -HAUTAKETA PROZESUAREN NONDIK NORAKOA

1.– Oposizio aldia

Idatziz erantzun beharko zaio, Balorzio Batzordeak erabakitzen duen gehieneko denboran, II. eranskineko gai zerrendako edukien inguruko galdetegi **teoriko-praktiko** bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia. Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Balorzio Batzordeak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, proba hau gainditzeko beharko den gutxieneko puntuazioa. Hau ezingo da 4 puntu baino gutxiago izan.

2.– Euskara azterketa.

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiak hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.



Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HE: 0,70 puntu.
- 2. HE: 1,12 puntu.
- 3. HE: 1,54 puntu.
- 4. HE: 1,82 puntu.

3.- Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari baremo honen arabera dagozkion puntuak esleitzuz egingo da:

Edozein administrazio publikotan, administrazio orokorreko eskalako administrariaren azpieskalan, egindako zerbitzuengatik gehienez ere lau (4) puntu emango dira; hilabete oso bakoitzeko, 0,015 puntu.

Deialdia argitaratzen den epea erreferentziazat hartuta zenbatuko dira merezimenduak.

ZORTZIGARRENA. - HAUTAPROBAK KALIFIKATZEA

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa honako hauetan lortutako puntuen batura izango da: oposizio aldian, lehiaketa aldian eta euskarari dagokion balorazioan, baldin euskara nahitaezko ez duten lanpostuak badira.

Berdinketarik gertatuz gero, irizpide hauek eta ordena honetan aplikatuko dira hurrenkera ezartzeko:

- a) Berdinketarik izatekotan, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren lanpostuetan, salbu eta beste izangaiengan sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola lana lortzeko eta lanean sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.
- b) Berdinketak jarraituz gero, irizpide hauei jarraituko zaie:
 - 1.- Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.
 - 2.- Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.



3.- Lehiaketa aldian aintzat hartutako zerbitzuetan denbora gehien egin duela egiaztatu duenaren alde.

BEDERATZIGARRENA. - GAINDITU DUTENEN ETA HAUTATUTAKO LANGILEEN ZERRENDIA. LANPOSTUAK HAUTATZEA ETA ESLEITZEA

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa egin ondoren, Balorazio Batzordeak gainditu dutenen zerrenda egingo du, kalifikazioei jarraituz.

Adierazitako zerrenda egin ondoren, Balorazio Batzordeak gainditu duten izangaiei behin-behineko zerrenda argitaratuko du Gurenetan (Funtzio Publikoa-Informazio Orokorra atalean)

Gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliadun (10) izango dituzte egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, Balorazio Batzordeak gaindituen eta eskaintzen diren lanpostuen behin betiko zerrenda bakar bat argitaratzeko agindua emango du, eta hamar (10) egun baliaduneko epea ezarriko du izangaiek adieraz dezaten nahi duten lehenespenei ordena lanpostu horien artean. Nola gaindituen behin betiko zerrenda hala hamar egun baliaduneko epe hori ezartzea Gurenetan argitaratuko dira (Funtzio Publikoa-Informazio Orokorra atala).

Administrazio orokorreko eskalako administrariaren azpieskalako C taldeko C1 azpieskalakoentzat zein administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpieskalakoentzat irekita dauden lanpostuen titularrei, baldin hala eskatzen badute, lehendik betetzen ari ziren lanpostuetan esleitu zaien destinoa eta, beraz, destinoak hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren ordenan esleitzeko sistematik kanpo geratuko dira.

Lehenespenei ordena garaiz eta behar bezala adierazten ez duena ordena horretako azken lekura igaroko da.

Hamar (10) egun baliaduneko epe hori amaituta, Balorazio Batzordeak hautatuen behin-behineko zerrenda egingo du, zeinean agertuko baita lortutako puntuazio ordenaren arabera haietako bakoitzari zer destino lanpostu dagokion.

Hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda Gurenetan (Funtzio Publikoa-Informazio Orokorra atala) argitaratuko da, eta hamar (10) egun baliaduneko epea ezarriko da erreklamazioak aurkezteko.

Hautatuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, Balorazio Batzordeak hautatuen behin betiko zerrenda egingo du eta Foru Aldundiaren organo eskudunari helaraziko dio administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpieskalako karrerako funtzionario izendatzeko kasuan kasuko proposamenak egiteko.

HAMARGARRENA.- AGIRIAK AURKEZTEA

Proba gainditu eta izendatuak izateko proposatzen diren izangaiek, behin betiko kalifikazioak argitaratu ondorengo egunean hasi eta gehienez hamabost egun naturaleko epean, jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte bigarren oinarrian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela frogatzeko, ez badituzte euren espediente pertsonalean jasorik agiri horiek edo berorien kopia konpultsatua.



Baldin eta adierazi den epean, ezinbesteko kasuak alde batera utzita, proposatutako izangaiak esandako agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen ez badu, ez zaio izendapenik egingo eta haren jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, erantzukizuna egotea baztertu gabe.

Agiriak aurkezten ez badira edo hautaturen bat lanpostuaz jabetzera aurkezten ez bada, Balorazio Batzordeak beste proposamen bat egingo du karrerako funtzionarioak izendatzeko.

HAMAIKAGARRENA.- IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Agiriak aurkezteko epea bukatu ondoren, proposatu diren izangaiak karrerako funtzionario izendatuko dira administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpitaldean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez. Foru agindu hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Izendapena egin eta hurrengo egunetik hasita, izendatutako izangaiak 30 egun balioduneko epea izango du bere lanpostuaz jabetzeko.

HAMABIGARRENA.- GORABEHERAK

Oinarri hauetan ezarri ez diren gaiei dagokienez, Balorazio Batzordeak ahalmena izango du egon daitezkeen zalantzak erabakitzeko eta hautaketa prozesua zuzen burutzeko behar diren erabakiak hartzeko.

HAMAHIRUGARRENA. - LAN POLTSA

Behin deialdia ebatzita, oposizio aldia gainditu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek lan poltsa osatuko dute, zeina erabiliko baita administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalako A taldeko A2 (B) azpitaldeko lanpostuak zerbitzu eginkizunetan betetzeko, berariazko araudian xedatutakoaren arabera.

HAMALAU GARRENA. - AURKARATZEAK

Interesdunek aurka egin ahal izango diete oinarri hauei, deialdiari eta deialditik nahiz epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintzei, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.



II. ERANSKINA

GAI ZERREDA

1. gaia.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Datuak babestearen printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua). Eskubide digitalak bermatzea (79-97 artikulua).
2. gaia.- 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna (17-36 artikulua).
3. gaia.- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko (1-22 artikulua). Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako (1-22 artikulua).
4. gaia.- Administrazio prozedura. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearena. Prozeduran interesdun direnak (3-12 artikulua). Administrazio publikoaren jardura (13-33 artikulua).
5. gaia.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio publikoetako organoak (5-24 artikulua). Zehatzeko ahalaren printzipioak (25-31 artikulua).
6. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. (I): Xedapen orokorrak (1-27 artikulua).
7. gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. (II) Kontratuko alderdiak (61-71 artikulua). Objektua, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspina (99-105 artikulua). 8. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (55-68 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (36-38 artikulua).
9. gaia.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena (59-68 artikulua).
10. gaia.- Zergen Foru Arau Orokorra (I). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Zerga-ordenamenduaren xedapen orokorrak: printzipio orokorrak. Zergei buruzko arauak: Arau-iturriak. Zergei buruzko foru araua noiz eman (1-7 artikulua).
11. gaia.- Zergen Foru Arau Orokorra (II). Zergei buruzko arauen interpretazioa, kalifikazioa eta integrazioa. Analogia zergen arloko zuzenbidean. Itzurpenaren aurkako klausula. Simulazioa. Tributuak: kontzeptua eta xedeak. Zergak, tasak eta kontribuzio bereziak. Legeen eta zergen arteko harremanak (11-17 artikulua).



12. gaia.- Zergen Foru Arau Orokorra (III). Zerga-betebeharrak. Zerga-betebehar nagusia: Zerga-egitatea eta salbuespenak. Sortzapena eta galdagarritasuna. Zerga-betebehar osagarriak. Zerga-betebehar formalak (19-29 artikulua). Zergapekoen eskubideak (34. artikulua).

13. gaia.- Zergen Foru Arau Orokorra (IV). Zerga-betebehar nagusia zenbatzeko elementuak. Zerga-oinarria: kontzeptua eta zehazteko metodoak (49. artikulua). Likidazio-oinarria (53. artikulua). Kargatasa (54. artikulua). Zerga-kuota (55. artikulua). Balioen egiaztapena (56. artikulua). Zerga-zorra: xedapen orokorrak (57. artikulua), zerga-zorra azkentzea (58. artikulua). Ordainketa (59-64 artikulua). Preskripzioa (65-69 artikulua). Konpentsazioa (70-71 artikulua). Zerga-zorra barkatzea (73. artikulua). Zerga-kredituaren bermeak (75-79 artikulua).

14. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1-5 artikulua). Zerga egitatea (6. artikulua), kargapean ez dauden errentak (8. artikulua) eta salbuespenak (9. artikulua). Zergadunak (10. artikulua). Errenten bakoiztapena (12. artikulua). Zerga oinarria zehaztea (14. artikulua).

15. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (II). Lanaren etekinak (15. artikulua): lanaren diruzko etekinak (16. artikulua) eta lanaren gauzazko etekinak (17. artikulua). Lanaren etekin osoa (19. artikulua). Gastu kengarriak (22. artikulua). Hobariak (23. artikulua). Jarduera ekonomikoen etekinak: zer diren (24. artikulua) eta etekin garbia kalkulatzeko arauak (25. artikulua). Atxikitako ondare elementuak (26. artikulua). Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arruntaren bidez kalkulatzeko arauak (27. artikulua). Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko arauak (28. artikulua).

16. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (III). Kapitalaren etekinak: Arau orokorrak (29. artikulua). Kapital higiezinaren etekinak. Kapital higiezinaren etekin osoak: zer diren (30. artikulua). Etekin garbia (31. artikulua). Gastu kengarriak eta hobaria (32. artikulua). Kapital higigarriaren etekinak: zer diren (33. artikulua). Denetariako erakundearen funtsetako partaidetzei esker lortzen diren etekinak (34. artikulua). Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortutako etekinak (35. artikulua). Kapital higigarriaren etekin osoak (38. artikulua). Etekin garbia (39. artikulua).

17. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (IV). Ondareko irabaziak eta galerak: kontzeptua (40. artikulua), kasu bereziak (41. artikulua), salbuetsitako ondare irabaziak (42. artikulua), ondare galera konputaezinak (43. artikulua), ondareko irabazien edo galeren zenbatekoa, arau orokorra (44. artikulua).

18. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (V). Errenta motak (61-63 artikulua). Errenten integrazioa eta konpentsazioa (64. artikulua). Likidazio-oinarria: orokorra eta aurrezkiarena (67. artikulua). Likidazio oinarri orokor negatiboen konpentsazioa (68. artikulua). Zerga oinarriaren murrizketak (69-73 artikulua).

19. gaia.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (VI). Kuota osoa (74. artikulua) eta kuota likidua (78. artikulua). Familia kenkariak eta kenkari pertsonalak (79-84 artikulua). Pertsona desgaituen ondare babesturako ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria (85. artikulua). Ohiko etxebizitzagatik kenkariak (86-87 artikulua). Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak (88-90 artikulua). Emariengatik kenkariak (91. artikulua). Kuota sindikalen eta alderdi politikoentzako kuota eta ekarpenen ziozko kenkaria (93. artikulua). Kuota diferentziala (95. artikulua) eta zerga zorra (96. artikulua).



20. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (I). Izaera (1. artikulua) eta aplikazio eremu subjektiboa (2. artikulua). Zergaren ordainarazpena (3. artikulua). Zerga egoitza (4. artikulua). Zerga egitatea (8. artikulua). Zergadunak (11. artikulua). Salbuespenak (12. artikulua). Subjektu pasiboa. Zerga oinarria: zer den eta nola zehazten den (15. artikulua).

21. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (II). Zuzenketak gastuetan. Amortizazioak: Arau orokorrak (16. artikulua). Ondare elementuen balio narriaduraren ondoriozko galera: kaudimengabezia (22. artikulua) eta balio galera (23. artikulua). Hornidurak (26. artikulua). Gastu kenezinak (31. artikulua). Gastuei buruzko arau bereziak (32. artikulua).

22. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (III). Balorazio arauak: arau nagusia eta arau bereziak kostu gabeko eskualdaketetan eta sozietate eragiketetan (40. artikulua). Lotutako pertsona edo erakundeen arteko eragiketen tratamendua: arau orokorrak (42. artikulua). Kontabilitateko balioaren ordezkari merkatuko balio normala jartzearen ondorioak (50. artikulua).

23. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (IV). Aldi egozketa: Sarrera eta gastuak kontabilitatean inskribatzea (54. artikulua). Zerga oinarri negatiboen konpentsazioa (55. artikulua). Zerga zorra: Karga tasa (56. artikulua), kuota osoa (57. artikulua), benetako kuota eta gutxieneko tributazioa (59. artikulua).

24. gaia.- Sozietateen gaineko zerga (V). Kenkariak: zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria (60. artikulua), aktibo finko berrietako inbertsioen ziozko kenkaria (61. artikulua), ikerketa eta garapen jardueren ziozko kenkaria (62. artikulua), berrikuntza teknologikorako jarduerengatikoko kenkaria (63. artikulua), enplegua sortzeagatikoko kenkaria (66. artikulua). Kenkarietako buruzko arau orokorrak (67. artikulua).

25. gaia.- Ondarearen gaineko zerga. Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1-2 artikulua). Zerga gaia (4. artikulua). Salbuetsita dauden ondasunak eta eskubideak (5. artikulua). Jarduera ekonomikoetako lotutako ondasunak salbuesteko betekizunak (6. artikulua). Zerga oinarria. Kontzeptua (11. artikulua). Kuota osoaren muga (33. artikulua).

26. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (I). Izaera, xedea (1. artikulua) eta aplikazio-eremua (2. artikulua). Zergaren kalifikazio printzipioa eta lotura (4-6 artikulua). Zerga-egitatea (7. artikulua). Zergadunak eta erantzuleak (10-12 artikulua). Zerga oinarria: arau orokorrak (13. artikulua), “mortis causa” eskuraketetako buruzko arau bereziak (15-18 artikulua), “inter vivos” doako eskualdaketetako buruzko arau bereziak (19-20 artikulua). Balioen egiaztapena (21. artikulua).

27. gaia.- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga (II). Likidazio oinarria (22. artikulua). Zerga-zorra (23-25 artikulua). Sortzapena (26. artikulua) eta preskripzioa (27. artikulua). Betebehar formalak (38-40 artikulua). Zergaren kudeaketa: Autolikidazioa (42. artikulua). Zergaren ordainketa (43. artikulua) eta ordainketa geroratzea eta zatikatzea (44-46 artikulua).

28. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (I). Zergaren izaera eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Zerga egitatea: ondasun-erateak eta zerbitzugintzak (4-6 artikulua). Zergari loturik ez dauden eragiketak (7. artikulua).

29. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (II). Elkarte barruko ondasun-eskuraketak: zerga egitatea (13. artikulua), zergaren menpeko ez direnak (14. artikulua), Elkarte barruko ondasun-eskuraketaren kontzeptua (15. artikulua), berdinetariko eragiketak (16. artikulua). Ondasun-inportazioak: zerga



egitatea (17. artikulua), ondasun-inportazioaren kontzeptua (18. artikulua), berdinetsitako eragiketak (19. artikulua).

30. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (III). Barne eragiketetako salbuespenak (20. artikulua). Ondasun-esportazioetako salbuespenak (21. artikulua). Esportazioei berdinetariko eragiketetako salbuespenak (22. artikulua). Zerga egitatearen burutzapen-lekua ondasun-erateetan (68. artikulua). Zerga egitatearen burutzapen-lekua zerbitzua egitean: arau orokorrak (69. artikulua).

31. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (IV). Zerga oinarria: arau orokorra (78. artikulua) eta arau bereziak (79. artikulua). Zerga-oinarria aldatzea (80. artikulua). Subjektu pasiboak (84-86 artikulua). Zergaren jasanarazpena (88. artikulua). Zerga-tasak (90-91 artikulua).

32. gaia.- Balio erantsiaren gaineko zerga (V). Kenkariak: Beharkizunak eta baldintzak (92-94 artikulua) eta 97. artikulua) eta kenkariak egiteko eskubidearen mugak (95. artikulua). Jarduera sektore ezberdinen kenkari erregimena (101. artikulua). Lainari buruzko araua (102. artikulua). Enpresa edo profesio jarduerak hasi baino lehenagoko kenkariak (111. artikulua).

33. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (I). Izaera eta edukia (1-5 artikulua). Zergaren aplikazio eremua (6. artikulua). Ondare eskualdaketak: Zergapeko egitatea: arau orokorrak (7-12 artikulua) eta atxikitze ezako kasuak (23-25 artikulua). Zergaduna (26. artikulua). Zerga oinarria: arau orokorrak (28-29 artikulua), arau bereziak (30-40 artikulua) eta bestelako arauak (41. artikulua). Likidazio oinarria (42. artikulua). Zerga kuota (43. artikulua).

34. gaia.- Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (II). Sozietate eragiketak: Zerga gaia (45-47 artikulua). Zergaduna (48. artikulua). Zerga oinarria (50. artikulua). Zerga kuota (51. artikulua). Egintza juridiko dokumentatuak: Printzipio orokorrak (52. artikulua). Notaritzako dokumentuak (53-56 artikulua). Merkataritza dokumentuak (57-63 artikulua). Administrazio dokumentuak (64-68 artikulua).

35. gaia.- 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoa aurrekontuen araubide ekonomikoarena (I): Printzipio orokorrak, egitura eta edukia (27-42 artikulua).

36. gaia.- 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoa aurrekontuen araubide ekonomikoarena (II): Aurrekontuen gauzatzea eta likidazioa (74-86 artikulua). Kontabilitatea (109-116 artikulua).

37. gaia.- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoa dirulaguntzena. Aplikazio eremua (1-5 artikulua). Dirulaguntza publikoen xedapen komunak (6-19 artikulua).

38. gaia.- Kulturaren Euskal Behatokia (2018). Kultura-politiken ereduak. Kultura-politikak testuinguruan. Esku hartzeko erremintak eta tresnak.

39. gaia.- Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa 2017-2020 (I). Zergatik Arabako kulturaren plan estrategikoa bat? Kulturak Araban duen egoerari buruzko azterketa eta diagnostikoa.

40. gaia.- Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa 2017-2020 (II). Proposamen estrategikoa. Planaren ekintzak.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru
Administrazioaren Saila

Departamento de Fomento del Empleo, Comercio y
Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza
Dirección de Función Pública

III. ERANSKINA/ ANEXO III

BARNE SUSTAPENA/ ONARTUA IZATEKO ESKAERA PROMOCIÓN INTERNA / SOLICITUD DE ADMISIÓN

ADMINISTRAZIO OROKORRA, KUDEAKETAKO AZPIESKALA, AZPITALDEA A2 (B)
ADMINISTRACIÓN GENERAL, SUBESCALA DE GESTIÓN, SUBGRUPO A2 (B)

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

NAN / D.N.I Izena / Nombre

Abizenak / Apellidos

Helbidea / Domicilio

Herria / Población Probintzia / Provincia PK / C.P.

Tel..... Posta elektronikoa / Correo electrónico

Ezinduen oharrak / Observaciones discapacidad@s

Egiaztatzen duzun Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico que acredita:

☐ HE1 edo baliokidea PL1 o equivalente ☐ HE2 edo baliokidea PL2 o equivalente ☐ HE3 edo baliokidea PL3 o equivalente ☐ HE4 edo baliokidea PL4 o equivalente ☐ Ez dut egiaztatu No acredita PL

Zer euskara proba egin nahi duzu? / Prueba de Euskera que desea realizar:

☐ HE1 edo baliokidea PL1 o equivalente ☐ HE2 edo baliokidea PL2 o equivalente ☐ HE3 edo baliokidea PL3 o equivalente ☐ HE4 edo baliokidea PL4 o equivalente ☐ Ez dut egin nahi No deseo realizar

Azterketak zein hizkuntz ofizialetan egin nahi dituen / Idioma oficial en que desea realizar ejercicios:

☐ Euskara / Euskera
☐ Gaztelania / Castellano

ADIERAZI / SEÑALE:

☐ Baimena ematen diot AFari nire datu pertsonalak trata ditzan hautaketa prozesuaren kudeaketa osoa gauzatu ahal izateko.
Autorizo a la DFA a tratar mis datos personales con el fin de poder gestionar integralmente el proceso de selección.

BEHEAN SINATZEN DUENAK

ESKATZEN DU: deialdian onartua izatea.

ADIERAZTEN DU: eskaera orri honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

LA/EL ABAJO FIRMANTE

SOLICITA: Ser admitido/a la convocatoria.

DECLARA: Que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.



Zurtagiriaren zk. Código de Verificación
tsil-SsHP-DGdm-CAZh

..... 20 -
Sinadura / Firma